**ERREPORTAJEA** SUKALDARITZA MEDITERRANEOA ETA BEGETARIANOA

**GEHIGARRIA** ION LIZARRALDERI ELKARRIZKETA · **KULTURA** KOLDO LIZARRALDEREN LIBURU BERRIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko ekainaren 13a/XL urtea/449. zkia



EKAINAREN 13TIK 15ERA

## Trinitateak heldu dira

"BATEK JOTZEN, ASKOK DANTZATZEN" (esaera zaharra)

# ZEN- -IDE



Kterako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

## Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria



**ORDUTEGIA**

1 0:00etati k-12:30era

1 5: 00etati k-20:30era

**an Frantzisko, 43 - 1. solairua**
el. 943 742 720
0870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR





...zatoz ,cAako ikastaroetara eta e.skara ikasike

lot c.rsos de veraho y apvehclerSs e.skara

**2003** **Udako Euskara Ikastaroak**
**Cursos de Euskara en Verano**

EGA AZTERKETA PRESTATZEKO

IKASTARO BEREZIA

- Eka naren 27tik uztailaren 24ra
- 5 ordu goizeon

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK

- Ekainaren 27tik uztailaren 24ra
- .5 ordu goizean
- Prezioa: 111,03 euro
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 64,53 euro

MATRIKULALDIA: Ekainaren 9tik 24ra

U111.
EUSKALTEGIAK

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Naftrroa Ennarantm 2 - ELGOIBAR - Tinao.: 943 742 731
elgoLeuskal@uctal.gipuzkoo.net
Txurruka Tenienteen etorbidea, 5 - MUTRIKU
Tfnoa.: 943 603 094 - etISILMUITIU@Udel.gipUZkOa.net
1for kalea, 12 DEBA - Tfrycla.: 943 192 236
euskaltegi@debamet

**www.udaleuskaltegiak.net**

# 40 URTE
# 40 ISTORIO

ELGOIBARKO

## 21 Berbenak merkatu piazan

Orain, akaso, modaz pasatuta badaude ere, duela urte gutxi arte berbenak ugariak ziren Elgoibarren. Sebasek esan digunez, Elgoibarren betidanik egin dira berbenak Merkatu Plazan.

Merkatu Plaza zaharra bota eta berria egin zutenean, goiko terraza apropos prestatu zuten berbenetarako. Barrua barra edo taberna jartzeko prestatu zuten eta kanpoan dantzarako oso terraza egokia jarri zuten.

Berbenak dirua ateratzeko antolatzen ziren. Beraz, berbenarako sarrera ordaindu egiten zen. Elgoibarko Izarrak, CD Elgoibarrek eta beste batzuek berbenak antolatzen zituzten beraien urteko aurrekontuak bete ahal izateko.

Sebasek gogoratzen duenez, Elgoibarko Izarrak Trinitate Jaietan antolatzen zuen bere berbena. Trinitateetako danborrada amaitu ostean, berbena hasten zen Merkatu Plazan gaueko hamaikak aldean eta goizaldera arte izaten zen. Txarrena berbena amaitu ostean izaten omen zen, dena jasotzea tokatzen zenean, hain zuzen ere. Baina umore onez egiten omen zuten lan hau ere.

Sebasek gogoan dauka jende asko joaten zela berbenetara. Jende gaztea izaten zen batez ere eta kanpoko jende asko hurreratzen omen zen. Orduko musika talderik garrantzitsuenak pasa ei ziren Elgoibarko Merkatu Plazatik: Koska, Egan, Akelarre, Zenbat bikote irten ote ziren berbena horietatik!

Baina Elgoibarko Izarrako berbenak ez ziren betirako. Diskotekak eta tabernak ugaritzen hasi zirenean, berbenen errentagarritasunak beherantz egin zuen, eta, berbenekin, dirua irabazi beharrean galdu egiten zuten. Hauxe izan zen Merkatu Plazako berbenen azkena.

*Sebas Larrañaga eta Imanol Larrañaga*

# iritzia



## Kolorea

Ez dakit nirekin ados egongo zareten, baina hauteskunde osteko gorabeherek hauteskunde kanpainak berak baino interes eta tirabira handiagoak sortu ditu politikarien artean. Begira bestela aste honetan Madrileko parlamentu autonomikoan gertatu dena, edo Arabako Foru Aldundian PSEk eman duen sorpresatxoa. Javier Rojori botua eman zioten arabar sozialista zintzoak `pozik' egongo dira euren botuak PPrentzat izan direla ikusi dutenean. PSE eta PSOE ipurdi bistan geratu dira. Rojoren hitzak entzun ondoren, Espainiako eta Euskadiko Alderdi Sozialisten estrategia zein izan den ulertarazten saiatu dira. Azalpenak entzun ditut, eta benetan, nik ezin dut ulertu nola eman duen amore PSEk. Ezin dut ulertu zergatik dauden PP alderdiari laguntza emateko prest. Beno, ulertu, uler dezaket, baina argi dago epe motzera erabaki horrek ondorio latzak ekarriko dizkiola alderdi sozialistari. Diotenez, PSOEko liderraren ipurdia salbatzearren hartu dute Arabako Aldundian PPri laguntza emateko erabakia. A zer aitormena! Horrelako alderdikideak edukita, nork behar ditu etsaiak!!

Politikak bereganatu du oraingoan ere gu guztion harreta. Eta jakina, politikaz dihardugun bitartean, benetako arazoei buruzko erabakiak, -erabaki garrantzitsuak, gainera- ez dira aztertzen ez eztabaidatzen. Ba al daki inork Madrileko Hezkuntza Ministerioak ikasketak goitik behera aldatuko dituen lege berria onartu duela? Aztertu eta eztabaidatu al dira lege horren ondorioak? Ba al dakizue lege berri hori mesederako ala kalterako izango ote den? Herritarroi benetan interesatzen zaizkigun kontuak etxebizitzarekin, lanarekin, ikasketekin, osasunarekin, aisialdiarekin eta bizi-kalitatearekin zerikusia dutenak dira. Gainontzeko guztiak bigarren mailan egon beharko luke, ez alderantziz.

Etxeko leihora arrimatzen naizenean eta Malapeko etxearen kolore deigarriari erreparatzen diodan bakoitzean hauxe pentsatzen dut: begi bistan ditugun gauzek ere merezi dute gure harreta. Izugarri pozten naiz etxe horretako bizilagunak gure herriaren itxura grisari kolore bizia ematen hasi direlako eta Errosario kalean ere badelako hain bideari jarraitu dionik. Imajinatzen al duzue Elgoibar arrosaz, lajanjaz, urdinez, horiz edo berdez jantzita? Ez al da zoragarria?

Ainhoa Lodoso


Kexak ....................................

gehigarria ....."....-.- .....

kiRolAk ..........................................

aGenda ............................................

2003-VI- 13

## HERRIXAK DAUKA HITZA

Udal Hauteskunde ez ohikoak bukatu dira, eta alderdi ezberdinei emaitzak gehixo edo gutxio gustau arren, hori da gaur egungo egoera honetan herrixak nahi izan dabana. Orain emaitza hoiei izen eta abizenak jartzeko garaixa heldu da. Elgoibarko Einbiou Herri Plataforma osatzen dogunok, ez daukagu inungo zalantzarik 17 jarleku hoien banaketa nolakua izan bihar dan, Elgoibarko bizilagunek horrela erabaki dutelako.

Ez dugu inungo zalantzarik gu eguneroko praktika politikotik kanpo uztea nahi gaituzten alderdien jarrera zein den. Baina zein izango da, lege hau demokratikoa ez dela esan duten alderdien jarrera, aldi berean traba eta oztopo besterik jarri ez digutela jakinda?

Gutun hau herri hau osatzen dugun herritar guztiei zuzenduta dago, herri honetan sinisten dugun guztioi, herri hau eraikitzea nahi dugun guztioi, herri honen hitza errespetatua izan behar dela pentsatzen dugun guztioi, eta bereziki, hauteskunde lotsagarri hauetan, benetako baldintza kaskarretan Einbiou Herri Plataformari konfiantza osoa eman diogun 1000 herritarroi.

Larunbat honetan, ekainaren 14an, beste zita garrantzitsu bat daukagu goizeko 10:30etan Udal Pleno Aretoan.

Gurea dena besterik ez dugu eskatzen.

**Asier Zengotita Alberdi 72.575.538**
**Einbiou Herri Plataformako hautetsia**

## MENDARORAKO DEMOKRAZIAREN BILA = HERRI FORUA

Pasa dira hauteskundeak eta lehenbizi eskerrak eman nahi dizkiegu maiatzaren 25a espainiar legeadiarekiko desobedientzia ariketa bihurtu dutenei.

Zinegotzi bat dagokigu eta hala eskatuko dugu larunbat honetan izango den udaletxe berriaren eraketan. Goizeko hamaiketan han izango gara nahi duenari gure eskaerarekin bat egitera gonbidatuz.

Hala ere, epe laburrera gure duintasunak hala eskatzen duelako, guri dagokigun eserlekua exigitu eta gero, epe luzeago batera proposamen bat egin diogu agintean sartzen den zorioneko alderdiari. Proposamena Herri Asanblada edo Herri Foru bat sortzeandatza.

Komunitate latinamerikarren funtzionamenduan oinarrituta, Herri Asailbladaren eraketa honela ikusten dugu guk: boturako eskubidea luketen 25 lagun aukeratuko lirateke asanblada irekirako. Herritar bakoitzak 3 lagun aukeratu eta gehien aukeratuak diren lehenengo 25ak sartuko lirateke boto eskubidea duten horien artean. Asanbladan eztabaidatzeko modukoak diren proiektuak zeintzuk diren desberdintzeko erizpidea (batzuk tramite hutsak izaten dira), asanbladaren periodikotasuna eta funtzionamenduaren arautegia zein izango diren erabakitzeke, jorratu beharreko gai garrantzitsutzat daukagu proposamen hau.

Benetako demokrazia bermatzen dugu horrela, ordezkarien kakademokrazia gorraren gainetik.

**Mendaroko herriak zinegotzi bat eman dion**
**Auzolanian herri bilgunea**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Malkoen torturapean



Umeen kometek sarraila bortxatu diote infinituari... gartzelako egutegia zartatu egin du inozentziak eta berak, 20 urtez preso dagoen horrek, denborak alokairuan utzitako epea darabil arnasteko...

Bukaerak, ez duelako puntu eta apartez idazten. Bukaeran, odolek, zer arnastu alferrik bilatzen dutelako; malkoen torturapean, itxaropenak heriotza nahi duela aitortzen duelako.

Hilzoria sinonimoen hiztegian, bizitzarekin hobeto legoke, edo helburuarekin. Eta helburu alde egite! Behin hasita, eustea eta irautea!

..Bitartean ilargiak zilar malkoak egin ditu etsipenezko bolatxoak bailiren...

**Maite Uriarte**

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza. 2
20870 ELGOIBAR
n 943 74 41 12
Publizitatea:
s' 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
vnwo.topagunea.comfbarren
ARGITARATZKILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KODREINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PURLOTATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLADORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Alb.eniz, Jokin Madinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBMIKO IZAIRA
LIAITLA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

kutxa

1DANOBAT

GOITI
ORUPO DANOBAT

EsTAFra

# Kexak

• Herritar batek Giza Eskubideen Plazan, udaletxe atzean, dauden lorontzi asko apurtuta daudela kexatzeko deitu digu. "bat zihero apurtuta dao eta beste askok zuluak ditxuzte. Umiak harrika ibiltzen dialako daude apurtuta. Hauek euren punterixia probatzen daben bitxartian, gurasuak begira egoten dia ezer ere ein gabe. Lotsagarrixa da. Udalak ere bere aldetik zerbaitx gehixo ein biharko lukela beitxantzen jata. Jaixak datozela eta herrixa apain lagatzeko berrixak ipintzia, beste batzutan ein izan daben moduan, ez jata ondo iruditzen, danon zergekin ordaintzen baititxugu. Daudenak hobeto zaindu bihar diala uste dot eta apurtzen ditxuenak edo hauen ardura dakenak ordaintzera bihartu. Harrixak botatzia galerazita dauala eta isunduta dauala dioen kartel bat jartzea ez legoke gaizki, adibidez".



• Emakume batek esan digunez, ez dago Merkatu Plazara umeen kotxearekin sartzeko modurik: "Sarrera guztietan eskailerak daude, ez dago ranparik. Igogailu bat badago, baina ez dute horretarako erabiltzen lagatzen. Zerbait egin beharko lukete; izan ere, ezin ditugu umeak kanpoan utzi txakurrak izango balira bezala".



Guraso bertsozale batek Ikastolako Errazu Bertso Eskolak antolatutako saioa txalotu nahi du, eta bide batez, lon Garate berari ere zorionak eman nahi dizkio, Plazatik Gaztetxera saioan egindako lanagatik.

Herritar batek C.D Elgoibarko neskak txalotu nahi ditu, Erreginaren kopa irabazi zutelako. "Partidua oso polita eta interesgarria izan zen eta neskek oso ondo jokatu zuten. Alberto Hernandez entrenatzaileari ere zorionak, eta eskerrak eman nahi dizkiot bere lanarengatik".

Guraso talde batek Herri Eskolako ikasle eta irakasleak txalotu nahi ditu joan zen ostegun eta ostiralean eskainitako jaialdiarengatik: "Zorionak eta eskerrik asko eskeini zeniguten jaialdiagatik eta egin duzuen lanagatik". Bide batez 6. mailako ikasleei eginiko agurra oso polita izan zela azaldu nahi dute.

Barrak, Birrak eta Barrak





Sukaldean sartzeak bejduira ematen du askotan. Tokiz kanpo sentitzen gara behin baino gehiagotan. Zein iapikotan.egingo dut? lenbat denbord utz.i behai da 3utan? .1o, erre egin zait! flar¯relakortk ertatzeko ellehingoz kozinatzen ikasteko, sukaldaritza ika℅ó a an o zuen aized¯Emakume Taldeak. Irakaslea Virginia Borriada sukaldaria; irakasgaiak sukaldaritza mediterraneoa eta begetarianoa. Virginiarekin hitz egin ¯dugu, eta ikastaroaren nondik norako guztiak-kontatudizkicid, eta¯honekin batera, bere burua apur bat ezagutzeko aukera ere izan dugu

# Sukald

## BAE

**VIRGINIA BARRIADA**
Sukaldaria



## "Sukaldaritzan egunero ikasten da zerbait"

Zer irakatsi duzu ikastaroan? Bi aste iraun ditu ikastaroak, eta gauza asko egin ditugu. Egunero bi orduko saioa izaten genuen, baina motza egin zaigu, martxa hartzen hasi ginenerako, amaitu egin zen. Plater oso errazak egin ditugu, konplikazio handirik gabekoak. Nik etxetik prestatuta eramaten nituen pare bat errezeta, eta denon artean egiten genituen. Bukatutakoan, prestatutako janaria bertan jaten genuen.

**Zenbat ikasle izan dituzu ikastaroan?** 16 ikasle izan ditut guztira. Gehienak emakumezkoak izan dira, bi mutil bakarrik ibili dira ikastaroan.

**Zein motatako jendea izan da?** Denetariko jendea izan da. Sukaldaritza ikastaroa egiteko ez da sukaldean trebea izan behar. Interesa ipini ezkero edonork egin dezake sukaldaritza ikastaroa. Gauza guztietan bezala, sukaldean ere gauzak ez dira lehenengoan ondo ateratzen, baina bigarrengoan seguru hobeto aterako dela.

**Errepikatzeko moduko esperientzia izan al da?** Bai, oso ondo pasatu dugu. Sukaldaritza ikastaroa eman dudan lehenengo aldia izan da, eta oso esperientzia polita izan da niretzat. Hasieran ez nuen nire lekua bilatzen. 16 pertsona lanean jartzea ez da erraza. Jateko sinpleak prestatu ditugu, eta ez zegoen hainbeste pertsonentzako lanik. Gainera, sukaldea berria zen niretzat, eta ohitura falta igartzen nuen.

**Zein dira prestatu dituzuen platerak?** Olozko albondigak (avena) egin genituen, eta arrakasta handia izan zuen plater honek. Haragia jaten ez dutenentzat irtenbide oso egokia da. Bestalde, oilasko entsalada, lasagna begetarianoa...

### "Oso ondo pasatu dugu ikastaroan, errepikatzeko moduko esperientzia izan da"

**Zeintzuk dira sukaldaritza begetariano eta mediterraneoaren ezaugarriak?** Begetarianoak ez du haragirik eta arrainik erabiltzen. Mediterraneoa, Katalunian eta Valentzia aldean jaten da asko. Sukaldaritza mediterraneoko jaki tipikoena Pantumaca (ogia, olio eta tomatearekin) da, oliba olioa erabiltzen da, batez ere.

**Egiguzu uda parterako menu apropos bat.** Oilasko entsalada udarako oso egokia da. Erraz egiten den jakia da, freskoa eta ez da betiko entsalada tipikoa.

**Nola eta noiz ikasi zenuen sukaldean?** 19 urterekin hasi nintzen sukaldaritza ikasten Eibarren. Udako praktika batzuk egin nituen Castellonen, eta bi urte egin nituen bertan. Atzerritarrak etortzen ziren, eta berandu ateratzen ginen lanetik. Gogorra zen baina asko ikasi nuen. Etxera itzultzean baldintza egokiak eskaintzen zizkidan jatetxea bilatzea kosta zitzaidan. Orain Bergarako jatetxe baten nabil lanean, eta gustura nago.

**Jendeak jai daukanean lan egitea gogorra al da?** Batzutan bai, gogorra egiten da, hasieran batez ere. Orain desberdina da, etxean ere laguntza daukat, eta iristen naizenean lan asko eginak daude.

**Erraza al da kozinatzen ikastea?** Asko kostatzen da. Gainera toki bakoitzean desberdin kozinatzen da. Gauza asko dago ikasteko. Urte asko daramatzat sukaldaritza munduan, eta egunero ikasten dut zerbait.

**Atzerrian okerrago jaten al da?** Republica Dominicanan egon ginen oporretan, eta ez da hemen bezain ondo jaten. Ez da jateko txarra, baina ez nintzen gustura geratzen. Etxeko jatekoa modukorik ez dago.

**Argiñanok plater guztiei ematen dion perrexil ukitua garrantzitsua al da?** Bai, baina platera apaintzeko bakarrik. Saltsetan ez zait gehiegi gustatzen. Saltsa marineroa egiteko bakarrik erabiltzen dut.

**Saltsa guztietako perrexila al zara?** Ez. Urteekin lasaitasun handia lortzen da, baina gaztetan ere ez nintzen oso saltseroa.

# arltza

# diterraneoa eta begetarianoa

## LABUR LABUR

**Zein da zure janari gustukoena?** Makarroiak.

**Gizon bat konkistatzeko janari bat:** Platera dotore ateratzea da garrantzitsuena, janaria bigarrena da.

**Gorroto duzun pertsona bati zer prestatuko zenioke?** Edozer gauza, baina inolako gusturik gabe kozinatuta, eta platerean edozein modutan aterako nioke.

**Plater afrodixiako bat:** Txokolate txorrostada bat daukan postrea.

**Gustoko sukaldari bat:** Subijana.

**Sekula jango ez zenukeen janari bat:** Denetarik jaten dut, baina bakailaoa pil-pilean astuna egiten zait, grasa gehiegi dauka.



*Haizea Emakume Taldeak antolatutako sukaldaritza ikastaroan hainbat errezeta irakatsi zituen Virginia Barriada irakasleak. Argazkian barazki lasagna labetik atera berritan.*

## SUKALDARITZA MEDITERRANEOA: TXIPIROI ENTSALADA

**Osagaiak: Letxuga, eskarola, gatz lodia, ozpina, oliba olioa eta txipiroiak.**

Letxuga moreak eta eskarola garbitu eta txikitu. Norberak ohiko letxuga nahigao badu, erabili dezake. Gatz lodia, ozpina eta olibazko olioa bota. Txipiroiak plantxan egin, berakatz apur bat eta ardo fin txorrostada bat bota. Platerean dena txukun-txukun ipini, entsalada erdian eta txipiroiak inguruan, eta dena jateko prest dago.

## SUKALDARITZA BEGETARIANOA BARAZKI LASAGNA

**Osagaiak: Lasagna pasta, lekak**

Lasagna pasta erosi, egosi eta hozten laga. Bitartean, lekak egosi. Kipula zartaginean pasatu, txanpinoiak laminetan ebaki eta azenario txikitua bertara bota. Apur batean zartaginean egin eta lekak gehitu. Tomate frijitu apur bat bota, eta horrekin guztiarekin lasagna pasta bete. Barazkien saldarekin bexamela egin, eta gainetik bota. Azkenik gazta errailatua ipini gainean. Labean sartuko dugun bandeja mantekilarekin pasatu, pasta bertan jarri, eta gratinatu.



# Datorren asteburuan, ekainaren 14an eta 15ean, ospatuko dira Trinitate jaiak

## Besteak beste, Trinitateetako II. Azoka Berezia izango da ikusgai zapatuan

Trinitate jaiak ospatuko dira datorren asteburuan Elgoibarren. Udalak egitarau zabala antolatu du, eta adin guztietako jendearentzat izango dira ekitaldiak. Azoka Berezia izango da larunbat goizean protagonista. Gauean danbor doinuek alaituko dituzte kaleak, Nagusien Danborradarekin. Igandean, artisau azoka ikusteko aukera izango da, eta Meza Nagusiaren ostean, etxeko txikienek hartuko dute nagusien lekukoa, eta danborrada izugarria eskainiko dute kaleetan zehar. Aurtengo Trinitateetan ez da aspertzeko unerik egongo.



**II. azoka berezia**

Hilaren 14an, Elgoibarko Trinitateetako II. Azoka berezia izango da. Debabarreneko Mendi Nekazaritza Elkarteak "Debemen"ek antolatzen du Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Helburua Elgoibarko baserrietan ekoizten diren produktuak erakutsi eta saltzea da. Bestalde, Elgoibarko baserrietan hazten diren animalien erakusketa egongo da. Animaliekin Elgoibarko 25 baserrik hartuko dute parte. Besteak beste, behiak (limusinak, pirenaikak, frisoiak, suitzak, asturianak, blondak, betizuak) idiak, Karrantzako astoak, emuak, hegaztiak, ardiak, txakurrak, ahuntzak, txerriak... egongo dira ikusgai eta goiz guztian zehar ardiari ilea moztetik haria egitera doan prozesuaren erakustaldia izango da.

Produktuekin, berriz, Elgoibarko 12 baserrik hartuko dute parte (barazkiak, ogia, gazta, eztia, esnea...). Goizeko 10:00etan hasiko da azoka Leku Eder parkean, Produktuen salmenta eguerdiko 14:00ak arte izango da eta ganadua arratsaldeko 17:00etara arte egongo da ikusgai Aita Agirre plazan. Eguerdiko 12:00etatik aurrera Elgoibarko baserrietan ekoizturiko kalitatezko produktuen dastatzea egongo da: Gernikako piparrak, Lumagorriko oilaskoa eta Basatxerri ezaugarria duten txerrikiak. Tikeak 11:30etatik aurrera egongo dira salgai postuan bertan 2 eurotan. Trukean 3-4 pintxo dastatu ahal izango dira.

# Joan zen ekainaren 6tik aurrera Bilbo-Behobia autopista merkeagoa da

## Irailetik aurrera Maltzaga eta Elgoibar arteko zatia konponduko dute

Ekainaren 6tik aurrera, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek kontratatutako bi enpresa arduratuko dira Bilbo-Behobia A-8 autopistaren kudeaketaz eta mantenimentuaz. Bidegi enpresak hartuko du ardura Gipuzkoako errepide zatian, eta Interbia enpresak Bizkaian. Hala ere, erabiltzaileek igarriko duten aldaketa garrantzitsuena prezioarena izango da, izan ere, prezio erdia ordainduko baitute.

Bilbotik Donostiara arteko bidea autopistaz egin nahi duenak 6,10 euro ordainduko ditu. Elgoibartik Donostiara 2,90 euro eta Bilbora 3,25 euro ordaindu beharko dira. Honetaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak deskontu plan bat jarriko du martxan, autopista sarri erabiltzen duten gipuzkoarren mesederako; Bizkaikoak ordea, ez du epe laburrera deskontuak egitea aurreikusten.

**Irailetik aurrera hobetze lanak**

Bidegi enpresatik jakinarazi dutenez, irailean hasiko dira Gipuzkoako errepide zatiaren hobetze obrak. Helburua errebueltak hobetuz, erabiltzaileen segurtasuna handitzea da. 60 kilometroko luzeran egingo dituzte hobetze lanak, ia Gipuzkoari dagokion errepide osoan zehar, eta konponduko duten lehenengo zatia Maltzaga eta Elgoibar artekoa izango da. Bestalde, zenbait tokitan norabide bakoitzerako hirugarren karril bat egingo dute. Guztira, 241 milioi euroko kostua izango du obrak.



## Elgoibarko Lanbide Heziketa Zentroak Kubara bidaltzeko kontainer bat prestatu du

Euskadi-Cuba Gobernuz Kanpoko Erakundearen laguntzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait Lanbide Heziketako ikastetxek, Kubara bidaltzeko kontainer bat prestatu dute. Elgoibarko Lanbide Heziketarako Zentroak eraman du ekimenaren koordinazioa. Joan zen urteko azaroan hasi ziren ikastetxeetan materiala eskatzen, eta apirilean pasatu dira biltzera. Kutxak bildutako materiala gordetzeko, King-Kong azpian Mimox denda izandako lokala utzi die, eta arduradunak esan digunez, dena bete dute. Ordenagailuak, material elektronikoak, laborategirako materiala, torno eta fresadora didaktiko bat, idazteko makinak... bildu dituzte, besteak beste. Datorren ekainaren 16an bidaliko dute kontainerra itsasontzi baten, Kuba aldera, Kubako Santiago hiriko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketarako ikastetxeetara, hain zuzen ere.



*J.L. Maure, Elgoibarko Lanbide Heziketa Zentroko irakaslea eta Javier Siam, La Habanako Botere Popularraren ordezkaria.*

## Elkarriko Joseba Sabanek Bake Konferentziari buruzko hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean



Ekainaren 10ean, Joseba Saban Elkarriko kideak, Bake Konferentzia berriari buruzko hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean. Hizlariak azaldu zuenez, Elkarrik 2004ko Hauteskunde Orokorren ondoren Bake Konferentzia berri bat prestatzea erabaki du. Joseba Sabanek argi eta garbi azaldu zituen gaur egun bizi dugun egoera, eta Elkarriren helburua zein den: "Egoerak bizi duen blokeoaren aurrean, indarkeriarekin, elkarrizketarik gabe eta gizartearen zati bat bizikidetasunetik kanporatuz ez dago konponbiderik. Alternatiba indarkeriarik eta bazterketarik gabeko elkarrizketa da. Beharrezkoa da adostasunen bila lanean jarraitzea. Horregatik eta horretarako prestatuko dugu Bake Konferentzia. Horregatik eta horretarako ekingo diogu berriz ere".

Honekin batera euskal gizarteari laguntza eskatzen dio Elkarrik, izan ere, Bake Konferentzia berri bat abiarazi ahal izateko 10.000 lagunek egitasmo honi laguntzeko prest agertu beharko baitute. Elkarriren lehenengo eskaria egitasmoari baiezkoa edo ezezkoa erantzutea da. Interesatuek 902 42 10 10 telefonora deituta edo www.elkarri.org webgunean jaso ahal izango dute informazio gehiago.

## Organu emaile izateko mahai informatiboa jarri zuten Plaza Handian

Alcer-Gipuzkoa Giltzurrun Gaixoen Elkarteak mahai informatiboa jarri zuen pasa den asteburuan Plaza Handian. Ekainaren 4an Emailearen Eguna zela aprobetxatuz, Gipuzkoako 30 herritan jarri zituzten mahaiok. Koro Aldaz elgoibartarra da presidentea eta berak eman digu elkartearen egoeraren berri. "Elgoibarren urte asko daramagu lanean eta kontzientziazio maila oso ona dago, baina behin maila hontara iristean mantentzea kostatzen da". Euskadin giltzurrun arazoak dituztenen tratamendua ere oso ona dela gaineratu digu, "urte bat edo bi bakarrik itxaron behar izaten dira transplantatzeko". Bestalde, organu emaile egin nahi izanez gero, edozein farmazietan eskura daiteke emaile egiteko beharrezko informazioa. Alcer-Gipuzkoaren telefonoa: 943 46 90 47. E-posta: alcer@terra.es



## Bilbo-Behobia autopistako prezioak erdira jaitsi dituzte

# ZUZENA AL DA BILBO-BEHOBIA AUTOPISTAKO PEAJEAK KOBRATZEA?



### FRANCISCO MEMBRILLERA

**45 urte, torneroa**

Nire ustez doan izan beharko litzateke. Urte asko daramatzate peajea kobratzen, eta honezkero irabazi nahikoa atera dute. Hala ere, orain jende gehiagok erabiliko du autopista.

### SOLEDAO ESPINDIA

**43 urte, klinika laguntzailea**

Ez litzateke kobratu behar, doan izan beharko litzateke. Beharra daukadanean beti erabiltzen dut autopista, eta orain berdin erabiliko dut. Hala ere, gaizki iruditzen zait kobratzea.





### ENBIQUE PRADE

**46 urte, tornileroa**

Erdia baino gehiago jaitsi beharko lukete. Zerbait kobratzea ondo dago, baina minimoa kobratu beharko litzateke. Momentuz ondo dago, ea aurrerantzean gehiago merketzen duten.

### EVA GRACIA

**31 urte, etxekoandrea**

Ez zait ondo iruditzen. Galiziakoak gara gu, eta askotan erabiltzen dugu autopista bertara joateko. Oso garestia da. Urte askoan kobratu dute, eta doan izan beharko litzateke.





### ROSA IVIATiI

**56 urte, irakaslea**

Neretzako ondo amortizatuta dao dagoeneko, eta ez lukete kobratu behar. Merkeagotze hau erabiltzailia engainatu eta piskat isilarazteko izan da. Aspalditxik izan biharko zan dohainik autopistia.

### MODERZA

**59 urte, delineantea**

Doan izan beharko litzake. Urte asko pasau dia ein zabenetik, eta hasierako tratua hori zan; urte batzuk kobrau ta gero doan laga. Ez dabe esandakua bete. Nik autopistia derrigorrez bihar dotenian bakarrik erabiliko dot.



IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %1 OEKO BEHERAPENA

94144 elpty« 0001⁓.1 teffildoa 16 uitte dete aonetd eta autooteg *tki, teouloa 1.5 otte dete ~ 1/
139

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

**Inaugurazioa**

Galizia Etxeen Ermandadeko lehendakaria, Elgoibarko Galiza Etxeko presidentea eta Elgoibarko alkatea izan ziren bertan.





**Gailegoen desfilea**

Gaita eta Dantza taldcen kalcjirek doinuz eta kolorez jantzi zituzten kaleak.



**Kepa Junkeraren kontzertua**

Trikiti, alboka, txirula, gaita eta txalaparta doinuak uztartu zituzten Kepa Junkerak eta bere taldeak barixakuan eskainitako kontzertuan.



**Ibarretxeri ongietorria**

Jende asko bildu zen igandean Ibarretxe lehendakariari ongietorria egiteko.



**Galizia Etxeko zazpi sozio fundatzaileak**

Duela 25 urte Elgoibarko Galizia Kultur Etxea sortu zutenetatik, 7 omendu zituzten.

Anchústegui
Sanyfer

ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA

Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 1 2 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

THE
riAKTFORD
ASEGURUAK

## Mekanizazioari buruzko gradu ondoko ikasketak IMHn

IMHk Mekanizazioari buruzko postgradua martxan jarri du hil honetarako. Goi-maila edo erdi mailako ingeniaritzako ikasle edo tituludunei zuzendua dago. Helburua CNCdun makinetan eta konbentzionaletan praktika hartzea da. Ekainaren 23an hasi eta uztailaren 24ra arte iraungo du, guztira 120 ordu, arratsaldez, 14.00etatik 20.00ak arte. Izena emateko epea ekainaren 18an amaitzen da. Interesatuak honako telefono hauetara dei egin dezakete: 943 74 82 66 / 943 74 41 32 (www.imh.es).

## Udako Euskal Unibertsitateak 28 ikastapn eskainiko ditu

"Haize berriak" izenburupean Udako Euskal Unibertsitateak 28 ikastaro eskainiko ditu aurtengo udan, Miarritzen uztailaren 7tik llra, eta Iruñean uztailaren 15etik 19ra. Ikastaroetaz gain, bi astetan zehar makina bat praktika, jardunaldi eta emanaldi izango dira, kultur ekitaldi (bertso saio, kontzertu...) eta saio osagarriekin batera. Honako jakintza gai hauek izango dira aukeran: Antzerkigintza, Antropologia, Bertsolaritza, Pedagogia, Musika, Historia, Ekonomia, Filosofia, Kazetaritza, Osasuna, Sexologia, Informatika, Yoga, Fisika... Izena emateko epea ekainaren 29an amaituko da (ekainaren 14tik aurrera %15 garestiago). Elgoibarko Udalak ikastaroaren matrikula osoa (egonaldirik ez) ordaintzeko dirulaguntza emango die, beka gisa, langabetu eta ikasleei. Honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura (Nafarroa Plaza 3) jo, edota 943 74 43 66 telefonora deitu daiteke goizez.

## 8 irakasle txinatarrek makinen mantenimenduari eta muntaiari buruzko ikastaroa egingo dute IMHn



Datorren ekainaren 16tik hasita eta irailera arte, 8 irakasle txinatarrek makinen mantenimentuari eta muntaiari buruzko ikastaroa egingo dute IMHn. Ekimen hau, AFMko (Makina Eremintaren Fabrikatzaileen Elkartea) Prosehoolsek bultzatuta, Tianjin-eko "Chinese-Spanish Institute" Proiektuaren barnean garatuko da.

Asiako herrialde honetan neumonia atipikoa dela eta gertatutakoa kontuan izanik, aipatu beharra dago Txinako talde honek beharrezkoak diren osasun kontrol guztiak gainditu dituela, IMHtik azaldu digutenez, ez dago batere arriskurik.

Txinako irakasle hauek, Eibarko Unibertsitate Laboralean izango dute ostatua, eta beraien egonaldian, Erkidegoko enpresa eta erakunde publikoak bisitatuko dituzte, beraien prestakuntzaren lagungarri modura.

## Elgoibarko Herri Eskolako ikasleek kurtso bukaerako jaialdia ospatu zuten



Joan zen ekainaren 5ean eta 6an, Herri Eskolako ikasleek kurtso bukaerako jaialdia ospatu zuten Herriko Antzokian. Bi egunetan banatuta, maila guztietako ikasleek eskaini zuten beren emanaldia. Txikienetatik hasi, eta nagusienetara, denek erakutsi zituzten beren trebeziak, eta askok, antzerkirako, abestirako eta dantzarako sekulako dohaina daukatela azaldu zuten. Ikuskizun polita eskaini zuten, eta bide batez, 6. mailako ikasleei agurra egin zieten.

## Pilar Ikastetxeko ikasleak San Adrianen izan ziren

Pilar Ikastetxeko L.H. 6. mailako ikasleek hiru egun pasatu zituzten San Adrianeko aterpetxean. Bertan, ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten, besteak beste, eskalada, tirolina praktikatu eta kobazuloak ikusi zituzten. Oso ondo pasatu zuten, eta txangoa berriz errepikatzeko desiratzen daudela esan digute.



Ba n
ASTEKARIA
GEHIGARRIA · HILEKO ELKARRIZKETA · 200 urtea/449. zkia

# E'1arrIkEta



EZ DA HERRIAN INOR IZANGO JON LIZARRALDE DANTZAN IKUSI EZ DUENIK ETA, ZIUR, BATEK BAINO GEHIAGOK GALDEGINGO ZIOLA BERE BURUARI NOLA GIZON HAU EZ DEN ORAINDIK ERDITIK HAUTSI. IA 42 URTEREKIN OIN PUNTTA BAT LURRARI ITSATSI ETA BESTEAREKIN ZERUARI HAZKA EGITEKO GAI DA; AIREAREN ET GRABITATEAREN LEGE GUZTIEI ADARRA JOTZE DIE BIZITASUN ETA ZEHAZTASUN IKARAGARRIZ ETA, BADIRUDI, BESTE GUZTIOK LUR GAINEAN IBILTZEN GAREN BITARTEAN, JONI ZORUA JARTZEN ZAIOLA AZPIAN, BERE NEURRIRA, BER PAUSUEN DOTOREZIARI KONPETENTZIARIK EZ EGITEKO EDO. ZUENEAN EZ DAKIT, BAINA GUREAN HORREK IZEN BAKARRA DU: LANA.

## Jon Lizarralde

Ei DOT INOIZ SAN BARTOLOME BEZPERAKO GAU BATEN ONDO LO IN"

*"AXURI BELTZA ONA DUT BAINA XURIA BERRIZ HOBEA...", EZ DIRA GUIXI, EZ, BERE OINETARA BEGIRA DANTZAN IKASI DUTENAK. EZ DIRA GUTXI IKASLEAK, EZ DIRA GUTXI ENTSEGUAk EZ DIRA GUTM EMANALDIAK...EZ DIRA GUTXI MERITUAK. JON LIZARRALDEK, BESTE DANTZARI BATZUEKIN BATERA, DENBORA, INDARRA ETA HUSIOA ESKAINI DIZKIO BERE BURUAREN ETA IKASLEEN PRESTAKUNTZARI. IZERDI TANTEK BETI EMAN OHI DUTE MEREZITAKO FRUITUA BAINA EZ DA ASKOTAN FRUITU HORI BEREHALAKOAN HELTZEN...IZAN ERE, GOGORRA BAITA BETI MAITALEAREN BIZITZA, EUSKAL DANTZEN MAITALEARENA ERE BAI.*

# Jon lizarraide

## "Oindik aurreiritzi a



I Noiz hasi zinen dantzan?

1981. urtian hasi nintzan dantzan. Gogoratzen naiz eta erretraturen baten ere nere burua ikusitxa nao, gaztetan, plazan dantzan zebizen nire laguneri begira, nik ez nakixan da. Berandu ikasi neban, 21 urte nakazela zuzenian nagusixekin hasi nintzan ta poliki-poliki juan nintzan ikasten, Txabolakin, Iñaki Gilekin...Ordutikan ez diot inoiz utzi dantza itxiari.



I Umeei dantza irakasten ere aspalditik zabiltza.

Bai, dantzan hasi ta segiduan, apenas nekizkixan dantza batzuk, Iñaki Gilek talde batekin ipini ninduan eta gero segiduan ba pixkat arduradun bezela Elgoibarko Izarran barruan euskal jaixak antolatzen...

**"21 URTEKIN, BERP DANTZAN. ORDUTIKI DANTZA**

Eta zer egin zaizu zailago, zuk ikastea ala haurrei irakastea?

Umieri erakustia. Ikasterakuan dana zure esku dau, zeuk ipintzen dozuz zeure metak eta zeure topia, baina umiekin beti lan gogorraua da. Askotan ez zara zure buruakin gustora gelditzen, edo ikusten dozu urte guztixan indako lanak ez dabala zuk espero zendun fruitua eman...Neretzat zaialua da erakustia, gainera ez dao metodologia haundirik eta ume bakoitza mundu bat da.

I Hiru anaiak zabiltzate dantzan. Etxetik jaso duzuen afizioa da?

Eztakitx. Igor txikitxan hasi zan ta gero ni ibilli nintzan berari erakusten, Gainera, etxian bronkak ere sarritxan euki ditxugu dantza dala ta ez dala!, batez ere anai gaztienakin, ze azkenian honek danak responsabilidade asko eskatzen ditxu ta haura lasaixaua da...

Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu dantzari?

Puf, asko. Azken boladan in dogun gauzarik onenetako bat bailarako dantzarixak elkartzia izan da. "Deba Beheko Dantzariak" izenakin herri batetik bestera ibiltzen gera. Horregaitxik, Eibarrera eta Debara ere juten naiz dantzara. Gainera, Deban nagusixei erakusten ere ibiltzen naiz uztailan 30ian nazioarteko jaialdixa daualako. Gero, ixa egunero umiei klasiak ematen dizkiet eta astian bi aldiz nagusixen ensaiva itxen dogu. Bestetik, urritik maiatzera bai nagusixak eta baitxa umiak ere txapelketarako prestatzen aritzen naiz eta zapatu arratsaldetan Lasturko dantzarixeri klasiak ematen dizkiet. Hor-

# o daude mutil dantzathon inguruan"



## HASI NINTZAN
## ! DIOT INOIZ UTZI
## ARI"

taz aparte, papel asuntua eta taldia eramatian erantzunkizuna dao. Ta denpora pixkat hartzen dogunian Gipuzkuako dantzako web orrixa ere preparatzen ari gera Portugaleteko dantza taldiakin batera. Orduan, kontuak atara.

Kanpoan izan al zara inoiz dantza ikasten?

Bai, adibidez, azken 15 urtietan dantzatzen dogun soka-dantzia Donostian ikasi genduan Gordejuelakin. Mugan bizi geranez dantzak beti bizkaitar kutsuakin ailegau jakuz eta tradiziva eta Gipuzkoako dantzak ondo ezagutzen ditxuen maixu onekin ikasi nahi genduan. Bestetik, Joan Antonio Urbeltzekik ere mugitxu gera kanpora eta monitore ikastaruak ere in ditxugu kanpuan.

Noiz hasi zineten Joan Antonio Urbeltzekin elkarlanean?

Aurtengo abuztuan ingo dia 15 urte berarekin lehenengo aldiz jaialdi bat plazaratu gendula eta aurten laugarren obria aterako dogu: "Pas de Basque". Oin arte berakin indako eszenifikazivak "Zortziko", "Alakiketan" eta "Kondarian" izan diaz. Horregaitxik aurten oparitxo bat ere eman nahi diogu Urbeltzi.

Horrenbeste urtean ez duzu inoiz dena uzteko tentaziorik izan?

Bai, behin baino gehixaotan, aurten ere bai. Lan asko eskatzen dau eta gogorra ere bada, ze, pentsau bihar da dantzan inguruko guztixa ez dala gure lana, gure zortzi orduez gain denbora librian itxen dogun lana da. Gainera, askotan bestiengandik ere ez dozu zuk espero dozuna jasotzen... Dana eraman bihar da: zure lana, umiei erakustia, nagusixekin ensaivak...askotan 24 ordu motz gelditzen dia. Gainera ni oso urdurixa ta perfekzionistia naiz ta adibidez, nik ez dot inoiz San Bartolome bezperako gau baten ondo lo in.

Oraindik urduri jartzen zara?

Bai, segun ze tokitxan gehixao. Nik nerbixo gehixen San Bartolome eguneko soka-dantzan eta folklorian pasatzen ditxut. Folklorian, batez ere, pixkat arduradun moduan egoten naizenez ez dalako nire burua bakarrik kontuan hartu bihar dotena. Dana dala, nik uste dot dantzarako bihar dala bizitasun hori, nerbixo hori.

I Horrenbeste urtean, anekdotarik izango duzu.

Akordatzen naizela behin bakarrik jausi naiz tablauan, Deban. Lurra bustitxa zauan ta 7 edo 8 jausi ginan lurrera. Bestetik, taldeko lehenengo pertsona ezkondu zanian, Arantxa Agiñako, bere bodan dantza in neban ta esan zian: "Jon, ez dot uste sekula hain gaizki dantza in dozunik". Itziarko elizan zan bodia ta lurra labaina zauan.

Nola ikusten duzu dantzaren egoera Elgoibarren?

Momentuan ondo baina jeitxiera igartzen da. Bai hemen ta bai Euskal Herri osuan talde oso onak jende oso gutxiki daoz. Batez ere mutilak falta dia, nik uste oindik aurreiritzi asko daudela mutil dantzarixon inguruan.



## "NERBIXO GEHIXEN SAN BARTOLOME EGUNEKO SOKA-DANTZAN ETA FOLKLORIAN PASATZEN DITXUT"

1 Noiz arte, beraz, dantzan segitzeko asmoa?

Eztakitx, gorputzak eta buruak ematen dien arte. Batzutan dana lagatzeko gogua ematen dau baina relebua ere norbaitxek hartu bihar dau, bestela, kate hori mozten bada berreskuratzia oso zaila da. Dana dala, talde haundixa dau hor dantza erakusten lanian: Arantxa Agiñako, Mikel Legorburu, Igor anaixa, Oier Araolaza, Ainhoa Larraria-g4Saina erantzunkizun haundixa da.



Lizarralde anaiak: Jon, Igor eta Unai.
Hirurak ere dantzari finak.



Elgoibarko Folklore Jaialdian ateratako argazkia.
1992ko uztailak 23.



1985eko uztaila.
Dantzari Eguna Gernikan.

## esteen ahotan



Lurdes Odriozola: "Benetako lagun eta adiskidea, langile amorratua, dantzari trebea eta Gipuzkoako dantzetan, batez ere, irakasle bikaina. Ardurak oso serio hartzen ditu, askotan lasaiago hartuta ez luke hain gaizki pasatuko. Jendearen edo lankideen ardura ezak asko haserretzen du. Baina lasai Jon, azkenean denek erantzuten dute, ia gehienetan behintzat!".

# infor mazioa

## Farmazia - okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 13 Yudego | Yudego |
| 14 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Zabaleta |
| 15 Zabaleta | Zabaleta |
| 16 Etxeberria (Errosaria kalean) | Etxeberria |
| 17 Ibañez | Ibañez |
| 18 Bidasolo | Bidasolo |
| 19 Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 20 Fernandez | Fernandez |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABAIETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
15 iganaea Doña Mercedes

## Eusko Tren

DONOSTIA-B11130
Egunero
Denostia Amam 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 06:00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

## Eusko

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25 21.25

Jaiegunetan
Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## PEStAUTOBUSAK

**LARUNBAT GAUA**

EIBAR-ONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

EIBAR-MUTRIKU

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 01.00 | 02.30 | **04.30** | 06.00 |
| Elgoibar | 01.10 | 02.40 | **04.40** | **06.10** |
| Deba | 01.20 | 02.50 | **04.50** | **06.20** |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | **04.55** | **06.25** |

MUTRIKU-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Dcba | 00.05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | **01.45** | 03.45 | 05.45 |
| Eibar | 00.25 | **01.55** | 03.55 | 05.55 |

EIBAR-AZPEITIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.30 | **03.30** | **05.30** |
| Elgoibar | 01.40 | **03.40** | **05.40** |
| Azkoitia | **01.50** | **03.50** | **05.50** |
| Azpeitia | **01.55** | **03.55** | **05.55** |

AZPEITIA-EIBAR

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02.30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02.35 | 04.35 |
| Elgoibar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | **04.55** |

***Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel. 902 101 210.***

## INTERESEKO

### OSASUNA

Anbulatorioa ........................... 943 03 26 10
Planning-a ............................... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak ................. 943 74 03 85
D YA (anbulantzia) ..................... 943 46 46 22
G u rutze Gorria ........................ 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .................. 943 03 28 00
Odol Emaileak ........................... 943 74 39 36

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak ...................... 943 74 04 42
PESA (Eibar) ............................ 902 10 12 10
Taxi geltokia ............................ 943 74 08 98

### UDALA

Euskara Zerbitzua ...................... 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua ................. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua ...................... 943 74 21 58
Mendaroko Udala ....................... 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua ..................... 943 74 10 08
Udaletxea ................................ 943 74 10 50
Udaltzaingoa ............................ 943 74 13 94

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ....................... 943 74 16 26
Kiroldegia ................................ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ..................... 943 74 30 88
Liburutegia ............................... 943 74 35 25
Musika Eskola ........................... 943 74 21 45
Mintxeta .................................. 943 74 43 15
Parrokia .................................. 943 74 08 42
Postetxea ................................ 943 74 15 47
Gaztetxea ................................ 943 74 35 72
Gazte Informaztoa ..................... 943 74 14 61

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza .................... 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ....................... 943 74 05 26
Eguneko Zentroa ....................... 943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola .............................. 943 74 21 41
HHI (EPA) ................................ 943 74 08 80
Herri Eskola .............................. 943 74 08 79
I M H ...................................... 943 74 41 32
I nstrtutua
Arreiturre ................................ 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) ....................... 943 74 80 19
Ikastola ................................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ......................... 943 74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN ................................... 943 74 41 12
El Diario Vasco ......................... 943 74 40 73
El Correo Español ...................... 943 74 10 82
Zazpiki irratia ........................... 943 74 34 74
Egunkaria ................................ 943 30 02 28
Gara ....................................... 943 31 69 99

# "Kalegoengo frontoi zaharra" liburua kaleratu du Koldo Lizarraldek

## Frontoiaren historia eta herriko 70 pilotari profesionalen aipamenak jaso ditu



*Pilotazale eta lagun asko hurbildu zen Kultur Etxera liburuaren aurkezpen ekitaldian.*

/Kalegoengo frontoi zaharra. Elgoibarko pilotaren historiari buruzko oharrak 1751-2003" izenburua dauka Koldo Lizarralde historiatzaile elgoibartarrak idatzi eta Elgoibarko Udalak editaturiko azken liburuak. Plaza Handiko frontoiaren historia biltzen du bertan, 1751. urtean eraiki zutenetik gaur egunera arte. Lizarraldek berak azaldu digu nola sortu zen liburu hau idazteko ideia, "1751. urteko ezker paretadun frontoirik ezin zitekeela egon esan zidatenean piztu zitzaidan liburua idazteko arra. Erronka modukoa izan zen. Nik baietz erantzun nien, bazitekeela, eta eraikuntza planoak eta guzti nituela. Baita nola eraikia izan zen, zer materialekin, etab. ere. Hau hala izanik lan bat idatzi behar nuela esan zidaten, 19. mendera arte ezker paretadun frontoirik ez zela existitzen uste izan baita. Frontoiari omenaldi bat egiteko asmoarekin idatzi dut.

Frontoia eta frontoiaren inguruko bizitzari buruzko datuak jasotzeaz gain, Elgoibarren izan diren 70 pilotari profesional ingururen aipamena ere egin du Koldo Lizarraldek. "Harrigarria badirudi ere zesta puntako jokalariak izan dira gehienak, 33 guztira. 27 esku pilota jokalari eta gainontzekoak pala eta erremonte jokalariak. Tartean 7 emakume ere badaude, hauetako 2 profesionalak izandakoak. Baliteke norbait ahaztu izana, barka diezadatela beraz, eta ahal bada jarri daitezela nirekin kontaktuan familiakoak hurrengo liburu batean ager daitezen".

Gaur egungo zaharrek gaztaroan nola bizi zuten pilota ere jaso du liburuan historiatzaile elgoibartarrak. "Lantokietan apustuak elkarri bota eta eguerdietan frontoian jokatzen zituzten. Egun guztia frontoian pasatzen zuten, herriko dibertsioaren zentroa izan baita betidanik frontoia. Anekdota eta bitxikeri asko kontatu dizkidate". Pilotari lotuta herrian egon diren bi Elkarteak: Baltasar eta Lagunak ere ez ditu aipatu gabe laga.

# "Sorkunn eta "Seiurten taldeen kontzertua Gaztetxean, gaur, hilak 13







Gazte Asanbladak antolatuta, Euskal Herriko bi musika talde berri eta ezagunen kontzertuak ikusteko aukera izango da gaur, hilak 13, Gaztetxean (22:30). Sarrerak 4 euro balio ditu eta ateratzen den dirua Egunkariaren aldeko akzioak erosteko bideratuko da. "Sorkun"en ahotsa ezagun egin da azken urteotan. 1995. urtean izan zuen musikan bataioa "Kashbad" taldearen estreinako diskoarekin. Ondoren, eta "Kashbad"ekin hiru disko egin dituela ahantzi gabe, hamaika talderekin kolaboratu du, besteak beste Negu Gorriak, Fermin Muguruza, Joxe Ripiau, Ekon, Flitter... Elgoibarren taldean landutako Sorkunen lehendabiziko bakarkako laneko abestiak entzungo ditugu. "Onna" da diskoaren izena (japonieraz emetasuna adierazteko hitza dugu) eta 12 kantuz osatua dago.

### "Seiurte"

Iokin, Iñaki eta Ekainek (hirurak anaiak) eta Julen berriztarrek osatzen dute "Seiurte" taldea. 2002 abenduan Euskadi Gazteako maketa lehiaketa irabazi zuten, taldearen maila, dotorezia eta nortasunari ordainetan emandako saria. Ondoren iritsi zen taldearen lehendabiziko diskoa, "Bapatean". "Zu eta Ni", "Barkatu" edo "Bapatean" dira denbora laburrean ezagun egin diren abestien izenak.

# Sanlo Eskubaloi Taldeko hiru talde Cipuzkoako Kopako txapeldun

## Cometel, Pagoaga eta Pneumax taldeak izan dira Kopa txapeldun



*Cometel Elgoibar*




***Pagoaga Elgoibar***




*Pneumax Elgoibar*

Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak Gipuzkoa mailako eskubaloian pisu eta zeresan handia duela erakutsi du beste behingoz. Aurten 3 izan dira Gipuzkoako Kopa irabazi duten taldeak: kadete neskak (Pagoaga), Jubenil neskak (Cometel) eta jubenil mutilak (Pneumax), hain zuzen ere. Pagoaga Elgoibar kadete nesken taldeak Leizaran taldearen aurka jokatu zuen finala Zumaiako Lubaki kiroldegian. Elgoibartarrek ez zieten aukera bat ere eman aurkariei eta 22 eta 6 izan zen azken emaitza. Honakoa jarraian lortzen duten bigarren txapelketa da. Cometel taldeko neskek, berriz, hirugarren urtez jarraian lortu dute kopa irabaztea. Finala Bera Bera talde indartsuaren aurka jokatu zuten Zumaian eta 22 eta 15 irabazi zieten. Azkenik, jubenil mailako Pneumax taldeko mutilek Andoainen jokatu zuten Kopa Txapelketako finala. Hiru taldek jokatu zuten elkarren aurka eta elgoibartarrak izan ziren bi partiduak irabazi zituzten bakarrak. Arrasateko taldeari 12 eta 9 irabazi zioten eta 15 eta 13 Egia taldeari. Hauentzat ere jarraian lortzen duten bigarren txapelketa izan da.

# 81 umek harth 7uten parte Igeriketa Egunean




Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta zuen Igeriketa Egunak partaidetza handia izan zuen pasa den zapatuan, hilaren 7an. Guztira 81 ume hurbildu ziren Olaizaga kiroldegiko igerilekura. Txapelketari dagokionez, honako hauek izan ziren emaitzak: 95-96 urteetan jaiotako mutiletan Unai Ortuoste izan zen onena eta Mikel Zuñiga sailkatu zen bigarren postuan. Urte berean jaiotako nesken artean Ane Espilla izan zen bizkorrena eta Miren Viñe bigarrena. 93-94ko mutiletan Josu Espillak irabazi zuen proba eta Julen Etxeberria izan zen bigarrena. Nesketan, berriz, Jone Larrariaga nagusitu zen, bere atzetik Alba Zangitu sailkatuz. Azkenik 91-92 urtean jaiotakoen artean Jagoba Egaria izan zen mutilik bizkorrena eta Julen Conde bigarrena. Nesken lasterketan Belen Cordanek irabazi zuen eta Nerea Cuende sailkatu zen bigarren postuan. Elgoibarko Igeriketa Taldeak eskerrak eman nahi dizkie eskainitako laguntzagatik Udalari, Udal Kirol Patronatuari eta baita Caja Laboral, Netto, Alzola Urak eta Telepizzari ere.

# 14 bikote ari dira Sigmako Pilota Txapelketan parte hartzen



Pasa den ekainaren 3an hasi zen Eulogio Estarta Elkarteak urtero antolatzen duen Sigmako Pilota Txapelketa. Aurten, gainera, frontoi berrituan jokatuko dituzte partiduak pilotariek, Sigmako frontoia margotu eta paretean zeuden zuloak konpondu baitituzte. Txapelketa antolatzen den 25. urteurrena izango da aurten. Guztira 14 bikote ari dira txapelketan parte hartzen, 7 bikote lehen mailan, eta 7 bikote bigarren mailan. Partiduak martitzen eta eguenetan jokatzen dira 19:00etatik aurrera. Finala uztailaren, 25ean, Santiago Egunean, jokatuko da.

# Mikel Elkoro-Iribe elgoibartarrak irabazi du Haundiko jokalari erregularrenari ematen zaion Idarraga Saria



I. Iglesias

*Sarituak eta zuzendaritzakoak garaikurrekin.*

Mikel Elkoro-Iribe eta Iñigo Gurrutxaga jokalari elgoibartarrak aritu dira Haundiko jokalari erregularrenari ematen zaion VI. Idarraga Saria eskuratzeko lehian urte guztian zehar. Entrenatzaileek eta zuzendaritzakoek banatzen dituzten puntuekin egiten da sailkapena. Liga amaitu ostean Mikelek lortu ditu puntu gehien (51) eta bi gutxiago Iñigok. Beraz, Mikelek jaso zuen saria pasa den maiatzaren 31n klubak antolatu zuen denboraldi bukaerako afarian. Klub deportibo Elgoibarko gainontzeko taldeetako goleatzaile eta jokalari onenak ere sarituak izan ziren afarian bertan.

| | Erregularrena | Goleatzaile onena |
|---|---|---|
| **Haundi** | Mikel Elkoro | Iñigo Gurrutxaga |
| **1. Erregionala** | Iban Eizagirre | Fran•Huidobro |
| **Neskak** | Amaia Epelde | Irene Elorza |
| **Jubenilak** | Unai Gasteain | Iban Murua |
| **Kadeteak** | Egoitz | Sergio Martinez |
| **Infantilak** | Ion Gabilondo | Patxi Larrea |

# Kadeteak eta jubenilak Debarroko Pilota Txapelketako finalean

Lagunak Pilota Eskolako kadete eta jubenil mailako bikoteek Debarroko Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte bihar, hilak 14, Ikastolako pilotalekuan (16:30). Markel Portu eta Iker Txurruka kadeteek Bergarako pilotariak kanporatu zituzten finalerdian. 22 eta 13 izan zen joaneko partiduaren emaitza elgoibartarren alde eta 22 eta 4 itzulerako partiduan. Final handia Oñatiko Aloña Mendiko ordezkarien aurka jokatuko dute arratsaldeko 16:30ean. Jubenilei dagokienez, Iriondo eta Ulaziak Aretxabaletako ordezkarien aurka lehiatu ziren finalerdietan eta bi partiduak irabaztea lortu zuten. Finalean Eskoriatzako bikotea izango dute aurrez-aurre.

### Zozketa

Bestalde, Lagunak Pilota Eskolakoek antolatutako zozketan, 301 zenbakidun txartela duen Inma Unsain andreak irabazi ditu eskuz banakako pilota finalerako bi sarrerak. Maiatzaren 31n egin zen Loteria nazionaleko zozketan eskatzen ziren lehen sariko 10.301aren hiru zenbakiekin bat zetorren Inmaren txartela.



# Xabier Loiolak irabazi zuen San Migelgo Bolo Txapelketa



*Artxiboko argazkia.*

Auzotarrak izan ziren nagusi San Migelgo Bolo Txapelketan. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketari zegokion 9. jardunaldia jokatu zen ekainaren 6an, Aiastiako bolatokian. Bertan, Xabier Loiola auzotarrak irabazi zuen lehiaketa 5 txirlo bota ostean. Iñaxio Kortabarria sanmigeldarra sailkatu zen bigarren postuan 5 txirlorekin eta 4. sailkatua ere auzotarra izan zen, Anjel Ibarluzea, alegia. Guztira 80 bolarik hartu zuten parte. Datorren zapatuan, ekainaren 14an, Bolari Eguna ospatuko da Eibarko Asola Berri bolatokian. Bertan, Txapelketako azken sailkapenean dauden parretakoak erabakiko dira.

# 47 mendizalek jaso zuten domina Finalista Egunean



*Ehun mendi igotzeagatik sarituak.*

Urtero legez San Pedron bildu ziren mendizale elgoibartarrak Finalista Egunarekin duten zitari erantzunez pasa den ekainaren 8an. Morkaiko Mendizale Elkarteko arduradunek adierazi digutenez 47 umek eta nagusik hartu zuten parte domina banaketa ekitaldian. Meza entzun eta dominen banaketa egin ostean, Atxutxiamaika Begirale taldekoen laguntzaz hainbat jolas izan zituzten aukeran gaztetxoenek eta baita pintxo eta edari batzuk dastatzeko aukera ere. Eguraldiak ekintzak errespetatu zituenez 30 laguneko talde bat bazkaltzera geratu zela ere gaineratu digute.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 10 MENDI | Mikel Arriola | Jon Odriozola | Hirune Zabala |
| Garazi Aranburu | Iosu Barrenetxea | Lorea Santiago | Nagore Zabala |
| Gorka Bereziartua | Edu Ibarzabal | Nora Santiago | |
| Irati Erostarbe | Ibai Konde | Itoitz Vitores | 40.000 M |
| Mikel Garate | Miren Konde | Urko Vitores | Eñaut Eizagirre |
| Miren Ibarzabal | Lore Mendizabal | | |
| Imanol Iturrino | Maialen Salabarrieta | 20.000 M | 100 MENDI |
| Elena Lariz | | Lorea Argarate | Jose Ignazio Izagirre |
| Danel Legorburu | 20 MENDI | Tesera Argarate | Izaskun Estibaritz |
| Jon Mugerza | Ane Astiazaran | Maialen Erostarbe | Eñaut Izagirre |
| Iker Oñederra | Unai Astiazaran | Asier Iriondo | Mikel Elustondo |
| Jon Iriondo | Aitor Barrutia | Joseba Iriondo | Jon Gasteain |
| | Ainitze Etxeberria | Eñaut Ladron | Teresa Argarate |
| 15 MEND1 | Goizeder Etxeberria | Ander Osoro | Lorea Argarate |
| Ander Armendia | Asier Odriozola | Garazi Osoro | |

## EMAITZAK

**Esku pilota**

Lagunak Txapelketa

M. Portu 18 - I. Ugalde 6 (Kad.)

Finalaurrekoak

I. Amezti 18 - A. Larrañaga 7 (Benj. aurre.)

F. Conde 18 - M. Gurrutxaga 7 (Benj. aurre.)

I. Txurruka 18 - M. Arrieta 13 (Benj.)

A. Gurrutxaga 18 - A. Gabilondo 13 (Benj.)

## AGENDA

**Esku pilota,** Ikastolan

Zapatua, 14

Debarroko Txapelketaren Finala

16:30 Lagunak - Aloña- Mendi (Kad.)

17:45 lagunak - Eskoriatza (Jub.)

18:30 Arrasate - Aretxabaleta (Nag.)

# Devilsurf 2003 Saria jokatuko da zapatu honetan, hilaren 14an, Azkarateko errepide zaharrean

"Devilsurf.com"ek antolatuta Bigarren Devilsurf 2003 Saria Dirtsurf Txapelketa egingo da Elgoibarren, zapatuan, ekainaren 14an. Banakako erlojuz kontrako modalitatean jokatuko da txapelketa Azkarateko errepide zaharrean. Basarte auzoan egongo da helmuga. Hau dela-eta errepidea moztuta egongo da.

Antolatzaileek Portugal, Frantzia eta estatu guztitik etorriko diren 40tik gora parte hartzaile espero dituzte. Arratsaldeko 16:00etan hasiko dira entrenamenduak eta 16:30ean partaide guztiak batera jaitsiko dira erakustaldia eginez. Banan banako lehen saioa 17:00etan hasiko da eta 18:00etan, berriz, bigarren saioa. 19:00etan sari banaketa izango da eta 21:00etan afaria egingo dute partaide eta laguntzaile guztiek batera. Domekan jauzi erakustaldi ikusgarria izango da Madarixan (aparkamentu inguruan) eguerdiko 12:00ak inguruan.



*Domekan Dirtsurf jauzi erakustaldia izango da Madarixan 12:00etan*

## h„.4 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko aldi baterako enpresak prentsarako langilea behar du. Erref. 103029/4

Gipuzkoako enpresak ingeleseko 12 monitore behar ditu. Erref. 103072/4

Eibar Bergara artean dagoen enpresak gasolindegirako 2 neska behar ditu. Erref. 102853/2

Debabarreneko aldi baterako enpresak garbiketarako langilea behar du. Erref. 103920/2

Durangoaldeko enpresak kalitate arduraduna behar du. Erref. 103101/4

Debabarreneko aldi baterako enpresak inkestatzaileak behar ditu. Erref. 103901/1

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Lan<sub></sub>gai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora RamOn) **943 74 41 32** telefonora.

## lana

ESKAERA

• Fabrika sektorean esperientzia handiko neska eskaintzen da, piezak montatzen, edo fabrikan lan egiteko. Baita garbiketan aritzeko ere.
zr 620 02 92 71 (Carmen)

• Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Egunean 2 ordu.
.15. 686 60 02 39

• 42 urteko emakumea adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. as. 677 09 70 15 (Carmen)

• Bi erizain laguntzaile gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. Esperientziadunak.
72 636 05 34 61/686 22 62 74

• Erreforma elektrikoak egiten ditut. Merke. zr 649 92 55 90/ 943 28 00 22 (Vitorio)

• Emakumea nagusiak, edo 10 urtera arteko haurrak zaintzeko prest. s. 943 74 30 04 (Elena Garcia)

• Emakumea edozein lan egiteko prest. a 660 69 53 03 (Marta)

• Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest.
zr 943 74 22 01 (Araceli)

• Emakumea bulegoak, lantegietako aldagelak edo bulegoak garbitzeko prest. Garbiketa industrialean esperientziaduna.
15. 669 22 35 27

• Etxerako era guztietako konponketak egiten ditut.
s 943 03 36 41/666 24 16 62

ESKAINTZA

* Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko mutila behar da. 55 943 74 02 41 (ofizina orduetan)

o Pertsona arduratsua behar da uztailean eta ekainean orduka haurrak zaintzeko.
.5. 943 74 08 63 (Sorkunde, 20:30etatik aurrera)

• Ileapaindegian lan egiteko pertsona behar da. 5.1. 943 74 43 88 (lan orduetan)

• Kamarereoa behar da.
zr 943 74 42 65

## Salerosketak

• Rolling Stones taldea Bilbon, h-ibunatik ikusteko 3 sarrera salgai. 150 euro bakoitza. azendoia@hotmail.com

• Boxer txakurkumeak salgai. Laster jaiotzekoak. Prezio onean.
660 72 34 28 (Eli)

• Sukalderako plantxa salgai. 80x40 zm. Elektrikoa, erabili gabea.
'rr 629 94 63 89

• 15'ko ordenagailu pantaila salgai 100 eurotan, instalaziorako kableak barne. Egoera oso onean. Beste pantaila bat opari. a 629 56 11 17 (19:00etatik aurrera)

• Ford Fiesta salgai. Egoera onean.
-a 943 20 34 57

• Ford Orion 1800, 16v salgai. 41.000 km, 11 urte. zr 943 74 09 44

• Trikitixa zero-sette markakoa salgai.
zr 943 74 25 89

• Rossignol markako carvin eskiak salgai. Lau urte eta 1,70m. 120 euro.
73 652 71 59 11

• Trikitixa salgai. Polverini txiki, 3-4 ahotsetakoa. ir 676 15 74 57

• Opel Vectra DTI, 2.2 sport salgai. Txuria, 5 ate. 2002. urtekoa. Kapot elektrikoa, klimatizadorea, ordenadorea... urte beteko opel garantia. tr 616 26 62 12

*Audi A4 salgai. 97koa. TDI, 110 cv. Zilar kolorekoa. Beti garajean.
s 616 26 62 12

• Ford Mondeo salgai. Egoera oso onean. Merke. .15. 943 74 11 08

Karabana salgai. Katusa 3750.
Tr 943 74 21 64

• Seat toledo salgai. Egoera onean, prezio ona. SS-AK. Tr 659 55 80 79

## Bestelakoak

• Astelehen goizean jertse gorri bat galdu nuen Plaza Txikian edo goiko kalean.
is 615 79 71 84

• Pertsona behar da autoa partekatzeko. Bilbora joateko ekaina eta uztailean. 7:00etan joan eta 14:15etan itzuli.
zr 943 74 39 43 (22:00etatik aurrera)

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 1 3:30a da.

## Garajeak

• Garaje marraduna salgai Pista Beltzean. tr 943 74 16 88

## Etxebizitzak

• Etxea salgai Elgoibar erdialdean. Eraberritua, altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. s 661 42 60 77

• Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Igerileku komunitarioa dauka.
943 74 23 63

• Etxea alokatzen da uztailean Elgoibarren (Ubitarten). Bikote batentzako proposa. Etxe oso berritua, igogailuarekin.
tr 943 74 24 42

• Pisua hartuko nuke alokairuan.
zr 943 03 03 21 (Mertxe)

• Logela alokatzen da. tr 699 91 31 69

• Logela alokatzen da. Tr 943 74 18 81

• Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibar, eibar edo Ermuan.
zr 600 75 31 02

• Apartamentua hartuko nuke alokairuan Benidorm-en abuztuan. a 667 94 24 33

• Etxea alokatzen dut, altzairuekin. Eguzkitsua eta berritua. s 943 74 36 46

## Partikularrak

* Uztailean DBHko Lengoaia eta Matematikako klaseak emango nituzke goizez. zr 943 74 42 06

• Lehen Hezkuntzako partikularrak emango nituzke uztailean goizez. Talde txikiak. u 943 74 20 94 (Yolanda)

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleari matematika klaseak emateko pertsona behar da. Uztailean, goizez.
zr 626 23 75 70


SUKATU S.COOP

*4440.1014 cS. Cbtbp.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

ALBERDI
ERRE KADISTA v 609 264 705

ELGOIBAR - DONOSTIA (enpresa eta partikularrentzako)

BILKETAK
• Paketeak • Gestoria
• Sobreak • Komertzioa

GESTIOAK
• Ogasuna • Trafikoa • Merkataritzako erregistroa
• Diputazioa • Merkataritzako - ganbera

# Agurrak

• Zorionak Joanes, hilaren 11n, 16 urte bete zenituelako. Zure lagun on baten partez. Besarkada bat zor didazu.



• Zorionak Ainhoa, familiakoen eta bereziki Jone eta Naiaren partez.



- Zorionak Andoni! Julene, Olaia eta familiako guztien partez



• Zorionak Bitxo zure 3. urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, zure arreba Iraitzen par tez.



• Zorionak Haritzl Hilaren 17an egun eder bat pasa dezazula. Zure gurasoen eta, bereziki, Eñauten partez.



*Zorionak Sergiori, hilaren 1ln urteak bete zituelako. Yeray, Yaize eta ....ren partez.



• Zorionak Jon, gaur 5 urte betetzen dituzulako. Muxu asko familiakoen eta bereziki, Noraren partez.



Zorionak Antonio Conde, gaur ostirala, ekainak 13, urteak egin dituzulako. Zure alaba Amaia eta Cristina eta zure emaztearen partez. Ondo pasa egunal



• Maddi ahizpa maitxia, hau da zureatik: Nola hazia zeran ikusia dot nik, 6 urtetxo dakazuz zuk martitzenetik, zorionak txo bihotz bihotzetik.



• Zorionak begi politx! Urte haundi bat bete dozu! Muxu potolo bat Ikastolako laguntxoen partez.



♦ Zorionak Miren, bihar, ekainak 14, 6 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak Kimetz, zure 15. urtebetetzean. Etxekoen eta bereziki, Imanolen partez. Ondo pasa!



• Zorionak Ibane Barberori, hilaren 14an 8 urte beteko dituelako. Zorionak printzesa aitatxo, amatxo eta familiako guztien partez.



• Zorionak Maria hilaren 10ean 4 urte bete zenituelako. Amama, aitxitxa, guraso, Juan, Lurdes eta bereziki, ahizpa Andrearen partez. Aupa txapeldun!



• Zorionak Oihanetxu! Larunbatean urtebete egingo duzu! Muxu handi bat etxekoen partez, eta patxito berezi bat Mikelen partez.



• Zorionak Igor, ekainaren 8an urte bete egin zenuelako. Gurasoen partez.



• Zorionak Elena Lariz, hilaren 12an 9 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez, eta bereziki amona Elenaren partez.



*Zorionak Asierri, hilaren 12an 8 urte bete zituelako. Familiakoen eta bereziki, Nekaneren partez.

**gazte** informazioa

*Egoibarko Gazte Informazio Gunea Kultur Etxean.*
*Bigarren solairuan. Tel. 943 741 461*
*OHARRA*
*Ordutegi herria*
*Astelehena: 17:00-20:00*
*Asteartea-ostirala: 16:00-20:00*

## INIAK

Ikerketa beka

Eusko Jaurlaritzako Industria. Merkataritza eta Turismoa Sailak kontsumo gaietan prestatu eta ikertzeko 5 beka atera ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez urtebete bizitzea, eta beka bakoitzari dagozkion ikasketa tituluak eskatzen dituzte. Epea: ekainak 16.

Praktika bekak

Sepi Fundazioak eta Grupo Aleoa-Inespalek tutebeteko praktikak egiteko 50 beka atera ditu, Praktikak Alicante, Amorebieta, Aviles (Asturias), A Conaria, Noblejas (Toledo) eta San Ciprianoko (Lugo) zentroetan bunnuko dira. Ingeniari titulua, lizentziatura edo diplomatura, ingelesa jakitea eta eskaerak aurkezteko azken eguna baino lehen 30 urte beteta izatea eskatzen da. Epea: ekainak 15,

## EKINTZAK

Getxo Abentura

Getxoko Udalak ekainerako antolatu dituen kirol jarduerak: arroilen jaisiera, espeleologia, eskalada, hipika, multiabentura, parapentea, arkutiroa, treking, urpekantza, piragua, surfa, bela, bela arina. Epea: plazak bete arte.

## LENIAKETA

Ipuin lehiaketa

Portugaleteko Udalak ipuin lehiaketa antolatu du. Lanak gaztelaniaz nahiz euskaraz aurkeztu daitezke. Gaia askea izango da eta lanek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. 16-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Epea: irailak 26.

Film laburrak

Gasteizko Montehermoso Kulturguneak Bat-bateko Film Laburren jaialdia antolatu du. Jaialdia ekainaren 23tik 28ra burutuko da Kulturgunean hertan. Kasu guztietan, lehenengo gidoirako premisa bat emango da eta hortik abiatuta, denbora epe zehatz bat izango da film laburra idatzi, gauzatu eta Montehermosora eramateko VHS formatuan. Epea: ekainak 20.

## LANA

Gizarte landea

Lasarte Oriako Udalak gizarte laneko lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Gizarte laneko diplomatu titulua edo gizarte laguntzailearen titulua edo baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna izatea eskatzen dute. Epea: ekainak 19.

Udaltzainak

Lasane-Oriako Udalak bost udaltzain lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Eskola graduatua, LHI edo baliokidea, euskarako 2. hizkuntza eskakizuna eta B motako gidabaimena izatea eskatzen dute, besteak beste. Epea: ekainak 19.

Kai zaindariak

Pasaiako Portuko Zaintza Zerbitzuan kai zaindari gisa ordezkapenak egiteko lan poltsa osatzeko aukeraketa probak. LHI edo baliokidea eta B motako gidabaimena eskatzen dute. Epea; ekainak 19.

Administraii laguntzaileak

Irungo Udalak administrazio orokorreko 5 lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Eskola graduatua, LHI edo baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna eskatzen dute. Epea: ekainak 26.

Txistulari

Irungo Udalak Txistulari Bandako txistulari lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa antolatu du. Musikako batxilergo titulua edo baliokidea izatea beharrezkoa da. Epea: ekainak 26.

# Trinitate Jaiak 2002

**EKAINAK 14, ZAPATUA**

10:00 **Trinitateetako II. Azoka Berezia** (Elgoibarko baserrietako produktuak)
Leku Eder parkean
Elgoibarko baserrietan hasitako abereak
Plaza Txikian

16:00 **XIX. Xake Txapelketa Leku Ederren**
Antolatzailea: Zubi Ondo

17:30 **I. Bereziartua Musika Eskolako Ikasleen Jaialdia**
Udal Txistulari Taldea eta Haritz E.D.T.rekin
Plaza Handian

19:30 **Triki-Trake taldea Plaza Handian**
(Euria egingo balu Musika Eskolako auditorioan)

23:00 **Nagusien danborrada**
Udal Musika Bandarekin

**EKAINAK 15, DOMEKIA**

**"TRINITATE EGUNA"**

9:00 **Diana Udal Txistulari taldearekin**

**10:30 "VIII. Artisau Azoka" Leku Eder parkean**

**11:00 Meza nagusia**
Parrokiako Abesbatzaren laguntzaz
San Bartolome parrokian

**12:00 Haurren danborrada**
Musika Eskolako bandaren laguntzaz
Udal Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta

17:30 **Erraldoi eta Buruhaundien kalejira**
Elgoibarko dultzaineroen laguntzaz

19:30 **Gelatxo Orkestraren dantzaldia**
Plaza Handian

## 13 BARIXAKUA

20:00 EINBIOUREN EKITALDI POLITIKOA
Plaza Handian

22:30 KONTZERTUA
Taldeak "Sorkun" eta "Seiurte"
Gaztetxean
Antolatzailea: Gazte Asanblada

22:15 KONTZERTUA
"Niko & Dominika Etxart eta Robert Larrandaburu"
Herriko Antzokian
Xiberua Garatzen egitasmoa

## 1 5 DOMEKIA

21:00 REALAREN **PARTIDUA** PANTAILA ERRALDOIAN
Celta de Vigo - Real Sociedad
Plaza Handian

## 1 7 MARTITZENA

**19:00** BILERA
Elgoibarko tailerraren bilera
Kultur Etxean
Antolatzailea: Elkarri

## 6 BARIXAKUA

22:30 KONTZERTUA
Itxaropena eta Ezoziko Ama Abesbatzak elkarrekin
Herriko Antzokian

## EKITALDI POLITIKOAK

Einbiouren deialdia

Einbiouk, Elgoibarko ezkertiar e abertzaleen plataformak, deialdia egiten gaur, ostirala 13, arratsaldeko 20:00eta Plaza Handian egingo den ekital politikora herritarrak joan daiteze "Larunbat goizean egingo den udaletxe demokratikoaren aukeraketaren aurrei herriaren ahotsa entzun dadin eskatzel asmoz eta herriko bigarren indarra dt plataformari ordezkariak ez lapurtzel asmoz".

## ERROMESALDIAK

Arantzazura erromesaldia

Elgoibarko San Bartolome parroki; antolatuta, ekainaren 22an, domeka Erromesaldia izango da Arantzazur Gorputz Kristi Eguna baita, Irteera goizel 9:45ean izango da Sigmako errotondati Bazkaria eta autobusaren prezioa eurokoa da eta Muruamendiaraz gozotegi, eskuratu daitezke txartelak ekainaren 21 baino lehen, betiere.

EIZAGUIRRE
OKINDEGIA




Ondo pasa Trinitate jaixak!

San Frantzisko kalea, 22 behea - Tel. 943 74 04 88

cAzion
AISIALDI TALDEA

DBH 3 - 4
Ekainak 22, igandea (arratsaldez)




PAIIITBALL

Izena emateko epea: **ekainaren 17ra arte**
Prezioa: **25 euro**
Elgoibarko Izarra - Ubitarte, 4 - Tel.: 943 74 18 28)

2003-VI-13

## KONTZERTUAK

Itxaropena eta Ezoziko Ama abesbatzak

Elgoibarko Itxaropena eta Plaentxiko Esoziko Ama abesbatzek 10. urte betetzen dituzte aurten. Urteurrena ospatzeko kontzertu bikoitza antolatu dute, Elgoibarren lehena eta Plaentxin bigarrena. Ekainaren 20an, barixakuan, izango da Elgoibarko kontzertua Herriko Antzokian, 22:30ean. Lehenik bi abesbatzak batera arituko dira eta 8 kantu abestuko dituzte Silvia Hernandezen zuzendaritzapean: "Bohemian Rhapsody", "Yesterday", "What a wonderful worl", "I say a little prayer for you"... Ondoren, abesbatza bakoitzak beste 6 edo 7 kantu abestuko ditu. Oraingoan Judit Murcia arituko da Itxaropena Abesbatzako zuzendari lanetan. Sarrera doanekoa izango da. Hurrengo egunean, ekainaren 21ean, kontzertu bera errepikatuko dute Plaentxiko plazan.

Rolling Stones

Rolling Stones taldeak Bilboko San Mames futbolzelaian ekainaren 25ean, asteazkenean, eskainiko duen kontzertura joateko autobusak antolatu dute elgoibartar batzuek. Arratsaldeko 18:00etan aterako da autobusa Sigmako errotondatik. Itzulera berriz, kontzertua amaitu eta ordubetera izango da. Kaia tabernan eman daiteke izena eta ekainaren 18an amaituko da epea.

## KIROLA

Gaztetxeko Esku Pilota Txapelketa

Gazte Asanbladak 4. Lagunarteko Esku Pilota Txapelketa antolatzen dihardu. Ekainaren 28an, zapatuan, jokatuko da txapelketa Plaza Handiko frontoian 9:00etatik aurrera. Izen ematea Gaztetxean egin daiteke eta 3 euro ordaindu beharko dira. Nahiz eta txapelketa egunean bertan ordaindu ahal izango den. Pilotan jokatu ostean bazkaria izango da Gaztetxean.

Realaren partidua pantaila handian

Realak jokatuko dituen Ligako azken bi partidu erabakiorrak pantaila erraldoian ikusteko aukera izango dugu elgoibartarrok. Aire libreko zinea ikusteko erabiltzen den Plaza Handiko pantaila erraldoian, hain zuzen ere. Lehen partidua Vigoko Celtaren aurkakoa izango da domeka honetan, ekainaren 15ean, 21:00etatik aurrera. Elgoibartar asko joango da Vigora partidua zuzenean ikustera, baina herriko zaletuek ere detailerik galdu gabe taldea animatzeko aukera izango dute.

## IKASTAROAK

Kzgunea

Kz zentruak 50 urtetik gorako pertsonentzat ikastaroa prestatu du, bereziki informatikan moldatzeko arazoak dituzten pertsonentzat. Ordenadorea erabiltzen, interneten nabigatzen, informazioa bilatzen, posta elektronikoa, edo txateatzen ikasiko dute gehienbat. Ikastaro hau ekainaren 16tik 20ra luzatuko da, arratsaldeko 6etatik 8 etara. Interesaturik daudenak Kzgunera joan besterik ez dute egin behar. Gure Ordutegia goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara da.

## Filzine

EGIA

ELGOIRAR, Herriko Antzokian

"X-Mert 2"

14, zapatua: 19:30-22:15

15, domekia: 19:30-22:15

16, astelehena: 22:15

E1BAR

Unzaga

"EI monje"

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:30

15, domekia: 17:00-19:30-22:30

16, astelehena: 19:30-22:15

17, martitzena: 19:30-22:15

18, eguaztena: 19:30-22:15

"Condenado"

13, barixakua: 19:30-22:15

14, zapatua: 17:00-19:30-22:15

15, domekia: 17:00-19:30-22:15

16, astelehena: 19:30-22:15

17, martitzena: 19:30

18, eguaztena: 19:30





### "K-Men 2"

Zuzendaria: Bryan Singer.
Antzezleak: Hugh Jackman, Patrick Stewart, Famke Janseen.
Eboluzioaren hurrengo kate maila dira. Bakoitza mutazio genetiko batekin jaio zen eta nerabezaroan aparteko botereak zituztela konturatu ziren. Gorrotoa eta aurreiritziak nagusi diren mundu bateko naturako fenomenoak dira. Askok beldurra diete eta marginatu egiten dituzte, ezin baitituzte mutanteen ezberdintasunak onartu. Zorionez, Xabier maisuaren eskutik, dituzten botere harrigarriak kontrolatzen ikasi dute eta gizateriaren zerbitzura jarri. Beldurra dien mundu bat babesteko egiten dute borroka.

N 2



Aste honetako erretratu zaharra Arantza Alonsok laga digu. Argazkia 1970. urte ingurukoa da. Neska koadrila honek Santa Klarako eskolan ikasten zuen, eta bertako patioan aterata dago erretratua. Gaur egun jadanik ez da Santa Klarako eskola existitzen, baina ziur elgoihartar askok ikasi zutela bertan. Gogora ditzagun zein diren neska hauek.
Goian, ezkerretik eskumara: Carmen Torres, Arantza Alonso eta IVIaria Jesus Galarraga.
Makurtuta, ezkerretik eskumara: Mari Carvallo eta Mari Jose Estibaritz.

---



*ESKERTZA*
*2003ko ekainaren 3an, 68 urte zituela hil zen*
*JAVIER ALVAREZ GALDOSen emazte, seme-alaba eta gainerako sendiak, pertsonalki egitea ezinezkoa zaigunez, lerro hauen bidez gure eskerrik beroena eman nahi dizuegu samin agurra adierazi eta baita hileta elizkizunetara etorri zareten guztioi.*



*ESKERTZA*
*2003ko ekainaren 3an, 78 urte zituela hil zen*
*MANUEL RIAÑO ZUBIZARRETAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# ETXEBIZITZAK ETA APARKALEKUAK

*CalAtOLILIJI01 ri"*

# AITZOLA (Bainuetxearen ondoan)




**126.212,54 eurotik aurrera**
**(20.000.0110 nezetatik aurrera)**




FATXADA NAGUSIA

Argibide gehiago:

**ANTT inmobiliaria**
**Tel.: 943 74 80 92**
**Antonio Arrillaga kalea, 1 behea**

**AUKERA EZIN HOBEA!!!**

1,4 r s k.: Illir." 14. Ar% ae.17

# •Trtftnto

# 2,003













.1#

inre I 1 1

h

aDrt

41(N41

,-.5 —

## Zofiord elgoibartar guzliei lidaldren izeneari

1 K:ICTRI SAILA 1ill

i.t. 5.';;J>;:kis'7,1751W,127.ialfIEWMISICZtetLIZwaT`;ki